

BERE MAIESTATE ERREGEAREN GABONETAKO MEZUA

2012ko abenduak 24

Gabon,

Gabon-egun honetan, urtero bezala, kezkatzen gaituzten gaiei buruz eta gure itxaropenei buruz gogoeta egin nahi dut zuekin.

Zehazki, hiru gairi buruz mintzatu nahi nuke: krisialdi ekonomikoaz, Espainiak Europako eta Iberoamerikako nazio gisa duen sendotasunaz eta politika errebindikatzeko beharraz, guztion indarrak batzeko, krisialdia atzean uzteko eta datozkigun erronkei aurre egiteko beharrezko tresna baita.

Espainiako historia berriaren une zailenetako batean gaudela esatea ez dut uste gehiegikeria denik.

Duela zenbait urtetik hona bizi dugun krisialdi ekonomiko larriak inork imajinatu ezingo lituzkeen intentsitatea, zabalatasuna eta iraunkortasuna erdietsi ditu. Hiritarrak krisiaren zorrotasuna pairatzen ari dira, eta familia askoren ongizatea kolokan jartzen ari da. Adin orotako pertsonengan pentsatzen dut, baina bereziki gazte ugariengan, egunero segurtasun eta animorik gabe altxatzen baitira beren ekonomiaren egoera zailaren, langabeziaren eta zalantzazko etorkizun-ikuspegiaren ondorioz.

Ezin dugu ukatu ezkortasuna badagoela, eta haren efektuak bizi dugun giro sozialaren kalitatean nabaritzen direla. Gainera, instituzioengandik eta guztiok kezkatzen gaituzten zeregin politikoengandik aldentzea eragiten ari da.

Ezkortasunaren aurrean, konformismoarekin gertatzen den bezala, egokia litzateke gaurkotzeko beharra duten zenbait gauza egiteko modu berriak bilatzea.

Egungo errealitatea konplexua da eta ez da beti ulertzen edo epe laburrean konpontzen erraza. Soiltasuna eta hazkundera bateragarriak izan behar dira. Egungo uko egiteek etorkizuneko ongizatea bermatu behar dute, zentzuzko epe batean, gure gizarte

garatuaren identitate ikur diren eskubide sozialak babesten direla ziurtatzeko.

Gure ekonomia berriz haz dadin, gure kontuak konpondu behar ditugu eta, aldi berean, aberastasuna sortuko duten estimuluak sustatu. Estimulu horietako batzuk politika ekonomikoaren eta fiskalaren bitartez sortzen dira, edo berrikuntza eta ekintzailtza bultzatzen duten politiken bidez, baina krisi honetatik aterako gaituen lehendabiziko estimuluak konfiantza du izena.

Nire erregealdian zehar, dagoeneko hogeita hamazazpi urte dirauenean, oso egoera ekonomiko zailak bizi izan ditugu, zenbait urte ditugunok ondo gogoratzen ditugunak. Beharbada ez ziren oraingoan bezain zailak izan, baina bai oso konplikatuak dena dela, eta hala ere gai izan ginen onik ateratzeko, gure ekonomia suspertuz eta gure ongizatea hobetuz. Hori guztia, beste arrazoi askoren artean, batez ere guztiok biltzen gintuen proiektu batean eta aurrera egiteko genituen aukeretan konfiantza izan genuelako lortu genuen.

Gaur, orduan bezala, zailtasunak gainditu ahal izango ditugu gure gizon eta emakumeen borondate, talentu eta sormenari esker, baita gure ekoizpen sistemaren sendotasunari esker, baldin eta guran konfiantza badugu eta nazioarteko instituzio eta merkatuetara ere zabaltzea lortzen badugu.

Espainia krisi globalaren irtenbidearen parte da, horregatik nazioarteko foro nagusietan erabakiak hartzean protagonista izan behar du. Iberoamerika funtsezko atala da guretzat, baita gu berarentzat ere. Gauza bera gertatzen da Europarekin. Europar Batasunarekin lan egiten jarraitu behar dugu ikuspegi nazionalak gainditzeko eta integrazio-prozesuan guztioi aurrera egiteko balio izan zaizkigun solidaritatearen oinarriak sendotzeko. Elkarrekin lortutako guztia arriskuan ez jartzea bermatu behar dugu: banakako eskubideak, eskubide sozialak, ongizate ekonomikoa eta politika nahiz ekonomia eraikitzeke prozesuak.

Baina ekonomia ez da dena. Agerikoa badirudi ere, errepikatzea ez dago gaizki: ekonomia ez da dena. Badakit politikak egun bizi duen egoera ez dela onena hiritarren ikuspuntutik. Horregatik gaur politika

errebindikatu nahi nuke, bere papera funtsezkoa delako krisialditik ateratzeko.

Politika handia errebindikatu nahi dut, bere duintasuna eta balioa azpimarratzeko letra larriz idatzi ohi duguna.

Gobernutik nahiz oposiziotik interes orokorrean eta hiritarren ongizatean arreta jartzen duena.

Pertsonak aurrez aurre jartzearen orde, eta dibertsitatearekiko errespetua oinarri izanik, komunean duguna integratzen duena, indarrak batuz, ez bananduz.

Bere zati bati uko egiten dakiena, guztiontzako onuragarria den zerbait handiagoa eta hobea lortzeko.

Funtsezko erronka kolektibo handiak bideratu eta konpontzeko elkar ulertzea eta akordioa bilatzen dituen.

Zerbitzuaren espirituan oinarritzen dena eta etika pertsonal eta sozialaren printzipioetara moldatzen dena.

Azken finean, iragankorra izan ohi den epe laburreko poztasunari uko egiteko gai dena, bere anbizioen mugak hedatzeko.

Politika hori izan zen gai gure historia gertatu berrian integrazio epe berri eta distiratsua inauguratzeko, eta politika horrek bakarrik du ahalmena gure nazioarekiko konfiantza berpizteko, itxaropenerako ate berriak irekitzeko eta gure gizarteak eskatzen duen gaitzete-nahi hori gauzatzeko.

Horretarako, elkarrenganako errespetua eta leialtasuna bezalako balioak sustatu behar dira. Duela hiru hamarkada baino gehiago balio horiek lagundu zuten elkarbizitzako esparru berria ezartzen, gure aniztasuna aintzatesten, eta Espainiako hizkuntza, kultura eta instituzioak babesten. Bada garaia aurrera begiratzeko eta zauri irekiak ixteko ahal dugun guztia egiteko. Berriz ere denon arrakasta izango da, bai hiritarrena bai instituzioena, legeak errespetatzean eta bide demokratikoetan oinarrituz.

Koroak jakin badaki hiritarrak adoretzen ari diren ahalegina. Bizitzan egiten diren ahaleginak ez dira inoiz alferrik, eta egungoak

baliagarriak ere izango dira. Testuinguru honetan familien jarrera pairamentsua eta leiala nabarmendu nahi dut, baita laguntza-erakunde ugarien solidaritatea ere, haien lanarekin gizartearen egonkortasunari mesede handia egiten baitiote. Halaber, haientzako eta haien familientzako baldintza hobeen bila gure herrialdea uzten ari diren espainiarren sakrifizioa. Bueltatzen direnean, lortutako esperientziak eta prestakuntzak efektu dinamizatzaile oso garrantzitsua izango dute gure ekonomian.

Gabonak eskuzabaltasunaren garaipenaren sinboloa dira norberekoikeriaren aurrean. Eskuzabaltasuna, solidaritatea eta konpromisoa guztiok beti aintzat hartu, mantendu eta sustatu behar ditugun balioak dira, eta batez ere bizi dugun garai honetan.

Gabon zoriontsuak denontzat eta gabon.